

ARTE PRAKTIKA GARAIKIDEKO ZENTROAK IRUDIA ARDATZ DUEN EKIMENA ATERBETUKO DU

Consonni gunea berriz abian

Bilboko Consonni lantegi ohia zaharrak berriro irekiko dizkie ateak arte ekimen esperimentalei. Etsiztik azaroaren 20ra arte Jon Mikel Euba zornotzarraren eta Rainer Oldendorf alemaniarren muntaiak, eta bideo egitarau berezia izango dira ikusgai.



Jon Mikel Euba ekainean hasi zen Consonnin lanean, erakustaldia prestatzen. MARISOL RAMIREZ

Montse Arregi / Bilbo

UDAKO parentesiaren ondoren Consonni espazioak astean irekiko ditu ateak berriro, oraingoan Irudia eta narrazioa uztartzen dituzten lanekin. Hilaren 16tik azaroaren 20ra bitartean Jon Mikel Euba artista zornotzarrak *Coche House Horse* muntala erakutsiko du, eta Rainer Oldendorf alemaniarrek *Der Bilbao-Song* izenekoak. Gainera, Catsou Robertsek hainbat egileren lanekin egituratu duen *Konfabulazio desberdinak: fikzioa + interferentzia* izeneko bideo egitaraua izango da ikusgai.

Irudia erakustaldion ardatz izanik, gauz irekiko da espazioa bertara hurbildu nahi duen guztientzat, 20:30etatik 24:00etara, hain zuzen. Consonni, Canal Bizkaia eta Artelekuren arteko elkarlanaren emaitza da hirurokuzkoen erakustaldia.

Joan den ekainean Loic Touze korografo frantziararen lanarekin inauguratu zen Consonni espazioa. Bilboko Institutu Frantziararen ekimenez. Lantegi zaharraren eraikina aproposa da ohiko aretoetan aurkezten ez den espresabide artistikoa erakutsi eta ikusteko. Zorrozaurre Erriberako lantegian dabil aspaldian Jon Mikel Euba zornotzarrak, *Coche House Horse* erakustaldia prestatzen.

Eubak Consonniren eskallertako hormak margotu ditu, eta, gainera, industri erabilera izan duen areto handian hainbat mural egin ditu. Toki horretan hainbat profetore eta pantaila jarri ditu. Guztia prest dauka hilaren 16an egingo den inauguraziorako.

Iaz lagun baten etxean antolatutako erakusketan du jatorria Eubak astean Consonnin erakutsiko duen lanak. Oso pozik dago espazioarekin, eta antolatzaile diren Bilboko Institutu Frantziarreko arduradunekin. «Hemen inolaz ere normala ez den sistema erabiltzen dute, ohikoa dena Frantzan; hau da, artista batek erakusketa prestatzen duenean kobratu egiten du, bizitzeko adina behizat», adierazi zuen.

Muralak eta protektatutako irudiek osatzen dute zornotzarraren proposamena. Irudi edo ikonoen eta narrazioaren arteko harremanak sakondu nahi ditu horrela. Produktzio lana ez da erraza izan, argazki asko atera behar izan ditu, eta gero muntaiak espazio bereizira egokitu. «Etxean behin eta berriro planteatu izan dut nola egituratu guztia halako areto handi eta gordinean», azaldu zuen. Kontatzekoak baino gehiago ikustekoa dela muntaiak azpimarratu zuen.

Rainer Oldendorfek ia hirurokuzko daramatza Marco proiektua garatzen. Zinema, argazkia, kartela eta diaporama biltzen dituen fitzearen filmaketan datza proiektua. Dusseldorf, Lyon, Israel, New York eta Parisen filmeko atari bana filmatu ditu, eta sei garren zatia Consonni espazioan egingo duen erakustaldian janduko du.

Erakusketa hirukoitzak osatzeko Catsou Robertsek prestatutako artista garaikideen bideoen emanaldiak egingo dira Consonnin etzilik hasita.

Espazio alternatiboa Bilbon • Artaren munduan «zerbait gertatzen» ari dela dio Eubak, duela

aste bi Bilboko pisu batean areto berria zabaldu dela gogoratzen. Duela hamar urte dirua zegoen eta arlstek galerietan erakusteko arazorik ez zegoen. Gaur egun, berriz, arazoak daude, ez baita apenas ezer saltzen galerietan, azaldu du. Donostian ere halako esperimentariak egin dela adierazi du, duela gutxi lagun batek hamar artistaren lanen erakusketa antolatu baitzuen bere etxean.

Arte munduan gertatzen ari den «mugimendu» horri ez dio zornotzarrak loturarik ikusten Guggenheimen irekierarekin. «Consonni proiektu alternatiboa

lehenagotik zetorren. Bestalde, argi dago guk ez dugula oraingoz Guggenheimen tokirik izango. Orain guneak behar ditugu ohiko aretoetan sartzen ez diren lanak erakusteko», azaldu zuen.

Consonni bezalako espazioa «luxua» dela derituz artista zornotzarrak. Euskarri aldetik «arazo-izua» da bere lana, muralak ezin baitira donon jarri erakusgai eta protekzioak ere espazio egokia eskatzen baitu. Erakusteko orduan bezala, saltzerakoan ere arazo berberak sortzen dira. X

Maskaradaren 'Nerudaren postaria' gaur eta bihar Gasteizen

■ Azpaitiko eta Bilboko antzokiak bisitatuko ditu datozen egunetan

Erredakzioa / Gasteiz

MASKARADAK Nerudaren postaria taularatu du gaur gaztelariaz eta bihar euskaraz 20:30etatik aurrera Gasteizko Principal antzokian, Nazioarteko Jaialdaren barruan. Bizkaitako konpainiak Azpaitia bisitatuko du astean Gasteizen aritu ondotik, eta hilaren amaieran, Bilboko Arriagan jokatuko dute Antonio Skarmeta txiletarrak 80ko hamarkadan idatzitako eleberrian oinarritutako antzeziana.

Orain dela bi aste pasatxo estreinatu zen Maskaradaren lan berri hau. Zornotza aretoan gertatu zen eta kritikak nahiz publikoak oso ongi hartu zuten Skarmetaren *Ardiñe paciencia* (pazientzia sülvia) obraren gainean egindako egokitzapena.

Massimo Troisi aktorea agertu zuen pelikularen lazko arrakastaren ondotik heldu da Maskaradak urtebeteko lanarekin prestatutako ikuskaria. Pelikular ematen duena baino gehiago ematen dugu guk, esan du Carlos Panera zuzendariak. «Gure obrak antzerki-dokumentura darama, hots, jatorrizko marko geografiko eta historikora», erantsi du.

Kontakizuna Allende Txileko lehendakari mitikoaren garaietan kokatu dute, eta hortik aurrera bi gazteren arteko Txetxu Altolagirre postariaren rolean eta Karin Shegel nekaren rolean amodiozko istorioa agertzen da. Bestetik, Ramon Castorenen da Nerudaren karakterizazioa. Patxo Telleria da kritikak gorailputatuko euskarzako testuaren arduraduna.

NOSFERATU

Zinema

Programación NOSFERATU Programazioa

V A S U J I R O

O Z U

Jaio naiz, baina... (Umarte wa mita keredo 1932)

Jatorrizko bertsoak euskarazko azpituuloekin

OZUren komedia mutu dibertigarriena. Ez galtzeko modukoa.

Iñaki Salvador-ek pianoaz lagunduta

DONOSTIA KULTURA

V.O.S.E.

ANTZOKI ZAHARRA

Urriak 15-16-17-18-19-20

Entradak: 450 pesetas. Abono ciclo (incluye 21 sesiones y la revista): 5.000 pesetas. Abono anual (incluye dos ciclos y dos revistas): 6.000 pesetas.